



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

# URTEKO TXOSTENA 2025



Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.  
20140 Andoain  
T. 943 592 556

✉ kluster@soziolinguistika.eus

➔ www.soziolinguistika.eus

f sklusterra

🐦 @sklusterra



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

Ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuak eginez eta bertako zein nazioarteko soziolinguistika ezagutza kudeatuz egiten dio ekarpena euskararen gizarte garapenari.

Ezagutza zorrotza eta fidagarria eskuratzeko, metodo zientifikoa baliatuz jarduten du unibertsitate esparruko ikerlariekin, administrazio publikoarekin, enpresa pribatuekin eta euskararen aldeko gizarte mugimenduekin elkarlanean. Soziolinguistika Klusterrak euskararen hitzun komunitateari ekarpena egiteko xedez, sortutako ezagutza soziolinguistikoa gizartean ahal bezainbeste hedatzeko bokazioa du.



(CC BY-SA 4.0)

Lan hau Creative Commons  
Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa  
(CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da.  
Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu  
<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

**SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA  
URTEKO TXOSTENA 2025**



## BAZKIDEAK

### OHOREZKO BAZKIDEA:



**EUSKALTZAINDIA**  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

### ERAKUNDE BAZKIDEAK:

- Artz Euskara Zerbitzua
- Bermeoko Udala
- Bilboko Udala
- Donostiako Udala
- Ebete elkarte
- Elhuyar Aholkularitza
- Emun Kooperatiba Elkarte
- Erandioko Udala
- Errenteriako Udala
- Euskal Herriko Ikastolak  
Europar Kooperatiba Elkarte
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskaraz Kooperatiba Elkarte (AEK)
- Eusko Ikaskuntza
- Hezten Aisialdi Euskaltzalea
- Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea,  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
- Hernaniko Udala
- HUHEZI Koop. E.  
Mondragon Unibertsitatea (MU)
- Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa
- Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide  
Elkarte (NETLE)
- Sakanako Mankomunitatea
- Taupa Mugimendua
- Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea  
(UEMA)
- Zumaiaiko Udala



**NORBANAKO BAZKIDEAK:**  
61 pertsona

## URTEKO TXOSTENA 2025 AURKIBIDEA

1	<b>2025ari buruz</b> .....	4 or.
2	<b>Nortasuna eta egitura</b> .....	5 or.
	2.1 Erabaki-guneak .....	6 or.
	2.2 Barne-proiektuak .....	7 or.
3	<b>PROIEKTUAK</b> .....	9 or.
	3.1 Bilboko gurasoen hizkuntza praktikak eta bizipenak .....	10 or.
	3.2 Berba-lapiko .....	11 or.
	3.3 Soziolinguistika hezkuntza sisteman txertatzeko egitasmoa .....	12 or.
	3.4 Izaskun Arrue ikerketa .....	13 or.
	3.5 ABAGAER .....	13 or.
	3.6 Aktibatuz! .....	14 or.
	3.7 Aldahitz Ikerketa .....	15 or.
	3.8 Hirigintza eta euskara ikerketa .....	16 or.
	3.9 Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak: Elgoibar eta Ynys Môn (Gales) .....	17 or.
	3.10 Euskararen Adierazle Sistema .....	18 or.
	3.11 Arnasguneak Hizkuntza Gutxituen Biziberritzean Nazioarteko konferentzia .....	19 or.
	3.12 BIHAR: hizkuntzetatik jalgitzen ari den mundua .....	20 or.
	3.13 Txillardegi-Hausnartu soziolinguistika sariak .....	21 or.
	3.14 Bat soziolinguistika aldizkaria .....	22 or.
	3.15 Soziolinguistika Albistaria .....	23 or.
4	<b>Lankidetzak, harremanak eta bestelakoak</b> .....	24 or.
	4.1 Aurkezpenak, hitzaldiak, formakuntzak, komunikazioak eta saio publikoak .....	24 or.
	4.3 Kidetzak eta parte hartzeak .....	25 or.
	4.4 Beste harremanak .....	25 or.
5	<b>Balantze ekonomikoaren laburpena</b> .....	28 or.

## 1

## 2025ari buruz

Soziolinguistika Klusterrak bere ibilbidea sendotzen jarraitu du 2025ean, euskararen biziberritze prozesuari eza-gutza soziolinguistikoan oinarritutako ekarpena egiteko konpromisoari eutsiz. Hasieratik bereizgarri izan dituen lankidetzak, zientifikotasuna eta gizarte-erikoko konpromisoa izan dira, aurten ere, egindako lanaren ardatz nagusiak.

Urtean zehar garatutako proiektuek erakusten dute Klusterraren jardunaren aniztasuna eta sakontasuna. Batetik, egoeraren azterketara bideratutako ikerketek, hala nola hizkuntzen erabilaren neurketek, hirigintzaren eta hizkuntza-praktiken arteko harremana aztertzeke lanek edo Bilboko gurasoen bizipen soziolinguistikoaren inguruko ikerketaek, euskararen egoeraren ulermen zehatzagoa eskaintzen dute. Bestetik, esku-hartzera bideratutako proiektuek (Aldahitz, Berba-lapiko, Aktibatuz!, Gipuzkoa Arigune edo hezkuntza sisteman soziolinguistika txertatzeko egitasmoak, besteak beste) erabilera areagotzeko tresna eta metodologia berriak garatzen lagundu dute.

Ezagutzaren kudeaketak eta hedapenak ere Klusterraren jardunaren zutabe nagusietako bat izaten jarraitzen dute. Bat soziolinguistika aldizkaria, Soziolinguistika Aalbistaria edo Txillardegi-Hausnartu sariak bezalako ekimenek komunitate zientifikoaren eta gizartearen arteko zubi lana egiten dute. Era berean, 2025ean antolatutako Arnasguneei buruzko nazioarteko konferentziak, BIHAR proiektuaren baitan diskurtsoen inguruan egindako ikerlanak eta urtean zehar egindako aurkezpen, hitzaldi eta lankidetzek Klusterraren nazioarteko proiektzioa indartzen lagundu dute.

Urte honek, gainera, etorkizunari begirako mugarri garrantzitsu bat ekarri du: 2026–2029 aldirako plan estrategikoa onartu da. Hausnarketa prozesu partekatu baten emaitza izan da, eta datozen urteetan Klusterraren norabi-

dea zehazteko tresna nagusia izango da. Testuinguru aldakor eta konplexu honetan, ikerketaren kalitatea sendotzea, antolaketa eredu egokitzea, finantzaketa egonkorra lortzea eta nazioarteko harremanak indartzea izango dira erronka nagusietako batzuk. Hori guztia aurrera eramateko konfiantzaz beteta gaude, lantalde indartsu eta konprometitu eta berritu bat daukagulako proiektua gidatzen. Amaitzeko, nire esker ona adierazi nahi diet Klusterreko lantaldeari eta bidelagun izan ditugun eragile guztiei, egindako lanagatik eta erakutsitako konpromisoagatik.

Aurrera begira, ezinbestekoa izango da euskararen biziberritzearen erronkei erantzuten jarraitzea, ezagutza sortuz eta aplikatuz, eta eragile ezberdinen arteko elkarlana sustatuz. Klusterraren sorrerako filosofiari eutsiz, baina gaur egungo beharrei egokitzuz, euskararen minorizazio egoera eraldatzeko ekarpena egiten jarraitzeko borondatea berresten dugu.

**Jasone Mendizabal.**

Soziolinguistika Klusterraren lehendakaria



## 2

## NORTASUNA ETA EGITURA

### *Nor gara, nora goaz eta nola antolatzen gara*

#### Misioa

Soziolinguistika Klusterraren xedea da ezagutza soziolinguistikoa sortzea eta kudeatzea euskara biziberritzeko prozesuaren beharrei erantzuteko.

Hori lortzeko lanean diharduten eragileen soziolinguistika alorreko gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu.

Horretarako, proiektuak garatzen ditu elkarlanean, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz.

#### Bisioa

Soziolinguistika Klusterrak euskara biziberritzeko erreferentziatzko ikergune izan nahi du, euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuan eragile papera hartuz eta berrikuntza bultzatuz.

#### Balioak

- **Zientifikotasuna:** metodo zientifikoan oinarrituta zorrotasunez dihardu eta horrek eragileekiko autonomiaz jokatzeko zilegitasuna ematen dio.
- **Elkarlana:** osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan.
- **Gizartearekiko ardura:** euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoia eta egindako proiektuen emaitzak gizarte-mailan zabalduko ditu gardentasunez. Gainera, arduraz jokatu du bestelako gaietan ere gizarte berdinzaleago baten alde, besteak beste, genero berdintasunean, iraunkortasunean eta diskriminazioen aurka.
- **Lurraldetasuna:** euskararen lurralde guztietan jarduteko bokoia du.

## 2.1 ERABAKI-GUNEAK

### Batzar Orokorra

Bazkide guztiek dute Batzar Orokorraren erabakietan parte hartzeko eskubidea. Aurreko urteko balantzea onartu eta urteko egitasmoa eztabaidatzeaz gainera, zuzendaritzako kideak aukeratzen ditu. Soziolinguistika Klusterraren Ohiko Batzar Orokorra 2025eko ekainaren 19an egin zen Andoainen. Eta 2025eko urriaren 29an, hau ere Andoainen, Es-ohiko Batzar Orokorra egin zen, erakundearen 2026-2029 plan estrategikoa onartzeko.

### ZUZENDARITZA BATZORDEA

Batzar Orokorrak izendatutako bazkideek osatzen dute. Hausnarketa estrategikoan eta urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuak betetzen direla ziurtatzeko beharrezko erabakiak hartu eta egokitzapenak egitea da organo honen zeregin nagusia.

2025ean ondorengoek osatu dute Zuzendaritza Batzordea:

- Igone Bastarrika, Amaia Balda eta Ruben Beitia (Emun Kooperatiba Elkartea)
- Maite Asensio (Hezten)
- Leire Solozabal (Artez Euskara Zerbitzua)
- Olatz Altuna (Soziolinguistika Klusterra)
- Helene Armentia (Elhuyar Aholkularitza) – Diruzaina
- Karmele Perez eta Eneritz Garro (HUHEZI – Mondragon Unibertsitatea)
- Josune Etxaniz (Eusko Ikaskuntza)
- Imanol Larrea (Soziolinguistika Klusterra) – Idazkaria
- Jasone Mendizabal (Euskaltzaleen Topagunea) – Lehendakaria
- Maialen Begiristain (AEK)
- Miren Segurola (UEMA)
- Jon Zarate (Euskal Herriko Unibertsitatea)

### BULEGO TEKNIKOA

Bulego Teknikoaren ardura da Soziolinguistika Klusterraren helburuak, estrategiak eta proiektuak kudeatu eta garatzea. Horiek arduratzen dira, aipatu bezala, Soziolinguistika Klusterraren helburu, estrategiak, ikerketa, garapen eta berrikuntza nahiz ezagutza kudeatzeko proiektuak kudeatzeaz. 2025ean 14 lagun izan dira bulegoko kide:

- Olatz Altuna Zumeta
- Asier Basurto Arruti
- Iñigo Beitia Zabala
- Olatz Bengoetxea Manterola
- Aitor Bilbao Landa (praktikaria)
- Isabel Godinez Hidalgo
- Andere Goikoetxea (bekaduna)
- Haizea Muñoa Urdanpilleta
- Paula Laita Pallares
- Imanol Larrea Mendizabal – Zuzendaria
- Iradi Sagredo Tolosa
- Pablo Suberbiola Unanue
- Miren Otxotorena Aranguren
- Belen Uranga Arakistain

## 2.2 HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA ETA 2026-2029 PLAN ESTRATEGIKOA

Hausnarketa estrategiko prozesuaren helburua Soziolinguistika Klusterraren hurrengo urteetarako norabidea zehaztea izan da, erakundearen egoeraren diagnostikotik abiatuta eta ikuspegiak kontrastatuz. Lanketa Emun aholkularien laguntzarekin garatu da, eta Bulego Teknikoak zein Zuzendaritza Batzordeak hainbat urratsen bidez osatu dute oinarrizko diagnostikoa.

Parte-hartzea errazteko, hausnarketa-prozesuan saio zabalak egin dira (martxoaren 26ean eta ekainaren 19an) Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean, aliatu, laguntzaile, bazkide, ikerlari eta administrazioko langileekin batera. Saiotan, Klusterrak egindako ibilbidearen errebasoa egin da, misioa eta bisioa berrikusi dira, eta hurrengo urteetarako estrategien inguruan eztabaidatu da.

Onartutako 2026-2029 Plan Estrategikoak tresna dinamiko gisa ulertzen den markoa finkatzen du, ziurgabetasun eta aldakortasun garaiei egokitzeko modukoa. Zehaztu dira 4 ildo estrategiko nagusi eta horiek aurrera eramateko 5 proiektu estrategiko (PE) eta 5 jarraipen proiektu (JP):

- (1) Ikerketan eta ezagutza soziolinguistikoan erreferentzialtasuna handitzea  
(JP) Nazioarteko harremanak eta proiektuak lantzea  
(JP) Komunikazio plana eguneratzea
- (2) Ikerketa proiektuen kalitatea sendotzea  
(PE) Ikerketa eredu definitu eta garatzea, inpaktu sozialaren eredu Soziolinguistika Klusterrera egokituz  
(PE) Egungo proiektuen kudeaketa sistema berrikustea  
(JP) Batzorde Zientifikoa abian jartzea  
(JP) AAren erabilera arduratsua eta eraginkorra (kode etikoarekin) ezartzea
- (3) Antolaketa eredu egokitzea, talde lanaren kultura eta praktika hobetuz  
(PE) Proiektuak talde lanean garatzeko prozesuetan sakontzea  
(JP) Lanketa psikosozialarekin jarraitzea  
(JP) Genero berdintasuneko plana abian jartzea
- (4) Finantziario eredu sendo eta jasangarria eraikitzea  
(PE) Finantzak kudeatzeko sistema propioa sortzea





## Euskara biziberritzeko erronkei erantzuten dieten egitasmoak

### 3

## PROIEKTUAK

1	Bilboko gurasoen hizkuntza praktikak eta bizipenak.....	10 or.
2	Berba-lapiko .....	11 or.
3	Soziolinguistika hezkuntza sisteman txertatzeko egitasmoa .....	12 or.
4	Izaskun Arrue ikerketa.....	13 or.
5	ABAGAER.....	13 or.
6	Aktibatuz!.....	14 or.
7	Aldahitz Ikerketa.....	15 or.
8	Hirigintza eta euskara ikerketa.....	16 or.
9	Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak: Elgoibar eta Ynys Môn (Gales).....	17 or.
10	Euskararen Adierazle Sistema.....	18 or.
11	Arnasguneak Hizkuntza Gutxituen Biziberritzean Nazioarteko konferentzia .....	19 or.
12	BIHAR: hizkuntzetatik jalgitzen ari den mundua .....	20 or.
13	Txillardegia-Hausnartu soziolinguistika sariak .....	21 or.
14	Bat soziolinguistika aldizkaria .....	22 or.
15	Soziolinguistika Albistaria.....	23 or.

## 3.1

*Euskararekin dituzten bizipenak eta eguneroko harreman-sareak aztertu, eta erabilera areagotzeko dinamika eraginkorrak diseinatu nahi dira.*

### Zuzendaria |

- Jaime Altuna Ramirez  
(Euskal Herriko Unibertsitatea)

### Bulegoko langileak |

- Olatz Altuna  
(Soziolinguistika Klusterra)

### Partaideak |

- Josu Ozaita Azpiroz  
(Antropologia ikerlaria)

## Bilboko gurasoen hizkuntza praktikak eta bizipenak

Haur txikiak dituzten Deustuko eta Alde Zaharreko gurasoekin gauzatu da ikerketa. Parte-hartzaileen analisi etnografikoaren bidez, Bilboko gurasoen errealitate soziolinguistiko orokorrera hurbiltzea izan da xedea. Horretarako, metodologia kualitatiboa lehenetsi da, eta behaketak, banakako elkarrizketak zein talde-elkarrizketak baliatu dira.

2024an, euskararen erabilera areagotzeko interbentzio eraginkorren gakoak identifikatu ziren, eta gurasoen artean euskarazko harreman-sareak sortu edo indartzera bideratutako jarduera ezberdinak diseinatu eta landu ziren. Zehazki, Gau Beltzeko erritu eta ospakizunen inguruko dinamika parte-hartzaileak garatu ziren.

2025ean, ikerketaren emaitzen hedapena egin da hainbat ekimenen bidez: aurkezpenak burutu dira, Berria egunkarian elkarrizketa argitaratu da, Bat aldizkarian artikulua bat plazaratu da, eta ASAE Antropologia Kongresuan parte hartu da.



### Babesle-laguntzaileak:

- Bilboko Udala – Euskara Zerbitzua
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## 3.2

*Garapen metodologikoa testuinguru erdaldunetako ikasleen euskarazko ahozko hizkuntzan aurrera egiteko.*

### Sustatzaileak |

- Soziolinguistika Klusterra
- Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

### Zuzendaria |

- Agurtzane Azpeitia Eizagirre (HUHEZI)

### Bulegoko langileak |

- Olatz Bengoetxea Manterola (Soziolinguistika Klusterra)
- Paula Laita Pallares (Soziolinguistika Klusterra)
- Haizea Muñoa Urdanpilleta (Soziolinguistika Klusterra)
- Iradi Sagredo bigarren abizena (Soziolinguistika Klusterra)
- Aitor abizenak (Praktikaria)
- Isabel Godinez Hidalgo (Soziolinguistika Klusterra)
- Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra)

### Partaideak |

- Berritzegune Nagusia
- Euskara eta Hizkuntzen Ikaskuntzaren Institutua (EUSHI)
- EAEko 41 ikastetxe
- Leire Diaz de Gereñu (EHU – ELEBILAB)

## Berba-lapiko

2017-2018 ikasturtean abiatutako ikerketa-proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabilera eta konpetentzian sakontzeko proposamena da, bereziki testuinguru soziolinguistiko erdaldunetan arreta jarrita.

2025ean, alde batetik, EAEn antzeko testuingurua duten 40 ikastetxetako 331 irakasleri prestakuntza eskaini zaie eta 5300 ikaslek parte hartu dute ahozko komunikazioa hobetzeari begirako esku hartzeetan.

Bestetik, ikerketa longitudinalarekin jarraitu da, Hizkuntza Errutina metodologia aplikatzen duten ikastaldeen bilakaera aztertzeko helburuarekin, EAEko 3 ikastetxetan. LH3ko geletan egin da datu-bilketa eta jasotakoaren azterketa.

Azkenik, Berba-lapiko ekimena eremu digitalera egokitzeko urratsak eman dira Moodle plataformaren edukia lantzen eta LH1eko materiala egokitzen eta berritzen.



➤ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/berba-lapiko-proiektua/>

### Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza Saila

### 3.3

*Hezkuntzan soziolinguistika lantzeko oinarriak eta programa diseinatzeko prozesua.*

#### Bulegoko langileak |

- Paula Laita  
(Soziolinguistika Klusterra)
- Asier Basurto  
(Soziolinguistika Klusterra)

#### Partaideak |

- Aholkularitza iraunkorra:  
Jon Sarasua (HUHEZI)
- Jarraipen Batzordea:  
Josune Zabala (EUSHI - Euskara eta Hizkuntzen Ikaskuntzaren Institutuko Zuzendaria)  
Alberto Telleria  
(Euskara Zerbitzua)  
Joseba Ibarretxe  
(Berritzegune Nagusia)  
Guruzne Arregi  
(Berritzegune Nagusia)  
Imanol Larrea  
(Soziolinguistika Klusterra)  
Paula Laita  
(Soziolinguistika Klusterra)  
Asier Basurto  
(Soziolinguistika Klusterra)
- Adituen lantaldea:  
Ainhoa Lasa (Emun)  
Malen Ugarte (Arrasateko BHI)  
Eider Saragueta (EHU-DREAM)  
Iñaki Eizmendi (Ebate)  
Iratxe Retolaza (Ikertzailea)  
Rosa Ramos  
(Uharri aholkularitza)  
Xabier Lasa (Ikastolen Elkarte)  
Guruzne Arregi  
(Berritzegune Nagusia)  
Josu Delgado (IRALE)

## Soziolinguistika hezkuntza sisteman txertatzeko egitasmoa

Hezkuntzak funtsezko rola du hiztun izateko motibazioa eta baliabide linguistiko, kultural, sozial eta emozionalak kalitatez lantzeko; horregatik, premiazkoa da soziolinguistika hezkuntza sisteman modu sistematikoan txertatzea.

2024an, soziolinguistika hezkuntzan txertatzeko *Oinarriak* adostu ziren: helburuak, onurak, gaitasunak, ezagutzak, jarrerak eta metodologia. Oinarri horietatik abiatuta, 2025ean *Programa-definizioa* egin da 11 adituk osatutako taldearekin. Talde horrek sortutako proposamena kontraste-fase batetik pasatu da, besteak beste hezkuntza arloko espezialisteko egindako mintegi batean.



#### Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hezkuntza Saila

## 3.4

*Euskara curriculumean duten Nafarroako ikasleen euskararen erabileraren ikerketa.*

### Bulegoko langileak |

- Maialen Iñarra
- Imanol Larrea

### Sustatzaileak |

- Euskarabidea
- Euskararen Nafar Institutua.

## Izaskun Arrue ikerketa

Nafarroan A, B eta D ereduetan LH4 eta DBH2n ari diren ikasleei hizkuntzen erabilerari buruz egindako inkestako emaitzen lanketa egin da.

2022-2023 ikasturtean ikastetxe guztietako ikasleei inkesta bat egin zitzaien, tartean hizkuntzari buruzko galderekin. Emaitzen azterketa egin da ikasleen eskola giroko euskararen erabileraren inguruan. Emaitza nagusiak EAS (Euskararen Adierazle Sistema) webgunean daude kontsultatzeko moduan, 2019an jaso ziren datuekin batera.

### Babesle-laguntzaileak:

- Nafarroako Gobernua – Euskarabidea



## 3.5

*Arabako euskal hiztunen babesguneak eta gazte-erreferenteak identifikatzeko proiektua da.*

## ABAGAER

Banakako eta taldekako elkarrizketak egin dira Arabako euskara teknikariek eta ikerlariek babesguneen eta erreferenteen identifikazio bideen inguruan. Proba pilotua egin da hainbat gazterekin, 2026an lurralde osoan hedatuko den ikerketaren diseinua probatu eta hobetzeko.

### Zuzendaria |

- Imanol Larrea Mendizabal (Soziolinguistika Klusterra)

### Bulegoko langileak |

- Miren Otxotorena Aranguren (Soziolinguistika Klusterra)

### Partaideak |

- Arabako Foru Aldundiko euskara teknikariak (Gasteiz kanpoan utzita)

### Babesle-laguntzaileak:

- Arabako Foru Aldundia - EuskAraba



## 3.6

### *Oarsoaldeko kirol klubetan euskara sustatzeko egitasmorako diagnostikoa.*

#### **Zuzendaria |**

Proiektuaren kudeaketa orokorra:

- Mikel Perez Gonzalez (Emun aholkularitza)
- Aritz Arzallus Agirrezabala (Emun aholkularitza)

#### **Bulegoko langileak |**

- Imanol Larrea Mendizabal
- Iñigo Beitia Zabala

#### **Partaideak |**

- Errenteriako Udala
- Lezoko Udala
- Oiartzungo Udala
- Pasaiaiko Udala
- Trintxerpe K.E.
- Allerru F.E.
- Ereintza Eskubaloia
- Munttarpe E.K.
- Pasaia K. E.
- Touring K. E.
- OTXE (Oarsoaldeko Txirringularitza Eskola)
- Oiartzun K.E.

#### **Aholkulariak**

- Jaime Altuna Ramirez (EHU)

## Aktibatuz!

Proiektuaren helburu nagusia Oarsoaldeko kirol klubetan euskararen erabilera areagotzea da. Eskualdeko herri bakoitzeko (Errenteria, Oiartzun, Lezo eta Pasaia) bi kirol klub aukeratu dira eta bakoitzean euskarak duen egoera aztertu da. Hala, zortzi klubetan egin da diagnostikoa hizkuntzaren ikuspegitik, eta klub bakoitzean euskararentzako babesgune izateko aldeko eta kontrako faktoreak neurtu dira. Horretarako, balio diagnostikoa egin da, klubaren identitate eta agenteen arteko harremanei loturiko galderen bidez, babesgune izateko baldintzak ea betetzen diren jakiteko asmotan.



#### **Babesle-laguntzaileak:**

- Oarsoaldeko Udalen Garapen Agentzia

## 3.7

*Hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak aztergai dituen lan-ildoak da, hausnarketa teorikoa, ikerketa eta aplikazio praktikoa uztartzen dituena.*

### Zuzendaria |

- Pablo Suberbiola Unanue (Soziolinguistika Klusterra)

### Bulegoko langileak |

- Pablo Suberbiola Unanue
- Iñigo Beitia Zabala
- Belen Uranga Arakistain
- Paula Laita Pallares
- Asier Basurto Arruti

### Partaideak |

- Maialen Otegi Saez de Eguilaz (Ahize-AEK)
- Itziar Urteaga Unanue (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Joxean Amundarain Iturrioz (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Sonia Isasi Zubieta (Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza)
- Xuban Zubiria Elexpe (Taupa)
- Uxue Loinaz Urruzola (Elhuyar Aholkularitza)
- Xabi Bosch Urdanibia (Emun)
- Leire Solozabal Bergara (Artez)
- Eider Iturricastillo Arrizabalaga (Artez)
- Paula Kasares Corrales (Euskarabidea)
- Maite Mangado Fernandez (Euskarabidea)

## Aldahitz Ikerketa

*Uler-saioak* metodologiaren esperientzia berriak antolatu dira, metodologiaren garapena bultzatuz. Eta, horrez gain, 2023-2024ko esperientzien analisia egin da.

*Uler-saioak 3* eta *Ulerrizketa* metodologiaren arteko lotura landu da. Bate-tik, 2024-2025 ikasturtean antolaturiko esperientzien gaineko ikerketa egin da. Honetaz gain, esperientzia berrien jarraipena eta datu bilketa egin da.

Aldahitz proiektuko metodologiak elkar josteko sistema Integralaren definizio orokorra osatu da eta *Eraikhitx sistema* bezala izendatu da.

“Euskarara Hurbiltzea” ildo osagarrian, *Uler-saioetan* eta *Ulerrizketan* aritu izan direnen hautemateak aztertu dira.

*Gipuzkoa Arigune* proiektuan ikerketa taldetik ekarpena egin da, Bartzordean eta koordinazio teknikoan hartuz eta lan-mundutik kanpoko esperientziei begira Eusle eta *Ulerrizketa* metodologiaren azalpenak eta materialak gaurkotuz.



➔ <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/aldahitz-ikerketa/>

### Babesle-laguntzaileak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Etorkizuna Eraikiz
- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua – Euskarabidea

## 3.8

*Hirigintzako eta lurralde-antolaketako erabakiek euskararen kale-erabileran zer-nolako eragina duten ulertzeko proiektua.*

### Zuzendaria |

- Koldo Telleria Andueza  
(Euskal Herriko Unibertsitatea)

### Bulegoko langileak |

- Miren Otxotorena Aranguren  
- Olatz Altuna Zumeta  
- Asier Basurto Arruti

### Partaideak |

- Botoi ikerketa taldea (UPV/EHU): Koldo Telleria Andueza, Irati Otamendi Irizar, Ainhoa Guerras Alfonso eta Oihana Santolaria del Campo

## Hirigintza eta euskara ikerketa

1980ko hamarkadatik hona kaleak eta, oro har, espazio publikoaren konfigurazioa nabarmen aldatu dira. Lurraldea antolatzeko ezarritako hiri-ereduak, beste hainbat faktore globalekin batera, eragin zuzena izan du eguneroko bizitzan, gizarte-harremanetan eta hizkuntza-ohituretan. Horieta sakontzeko beharrak eragin zuen proiektu honen sorrera.

Ikerketaren hipotesi nagusiaren arabera, zaintzak erdigunean jartzen ez dituzten hirigintza-ereduek eragin mugatzailea izan dezakete hizkuntza gutxituen kale-erabileran. Proiektua 2023an abiatu zen, eta bost udalerrri aztertu dira: Gernika, Hernani, Tolosa, Zarautz eta Zornotza. Auzoak izan dira analisi-unitate nagusia, eta, horrenbestez, metodologia espezifiko bat garatu da hirigintzaren eta hizkuntza-erabileraren arteko loturak identifikatu eta aztertzeko.



### Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Amorebieta-Etxanoko Udala, Gernika-Lumoko Udala, Hernaniko Udala, Tolosako Udala eta Zarauzko Udala



## 3.9

*Udalerrri mailako neurketak Euskal Herriko eta Galeseko hainbat herritan.*

### Bulegoko langileak |

- Olatz Altuna eta Andere Goikoetxea (Soziolinguistika Klusterra)

### Partaideak |

- Elen Hughes (Menter Môn)

## Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak: Elgoibar eta Ynys Môn (Gales)

Galesko Bangorreko Unibertsitateak hizkuntzen erabileraren kale-neurketa egiteko tresnak eta metodologia egokitu zituen Galesen neurketak gauzatu ahal izateko. Iaztik hona, Ynys Môn-en bost udalerritan egin dira neurketak, eta honako hauek izan dira galesaren erabileraren emaitzak: Llangefni %56,6; Porthaethwy %19,9; Amlwch %16,7; Caergybi %9,1; eta Llanfair PG %45,3.

Neurketa horiei esker egiaztatu da metodologia egokia dela Galesko eremu horretan ere aplikatzeko, eta, aldi berean, antzekotasun soziolinguistiko esanguratsuak daudela Galesen eta Euskal Herrian hizkuntzen kale-erabileraren inguruan.

Horrez gain, 2025ean Elgoibarren ere egin da kale-neurketa. Soziolinguistika Klusterrak udalerrri horretan egindako hirugarren neurketa da. Egun, Elgoibarren euskararen kale-erabilera %36,2koa da, eta 2017az geroztik erabilera orokorra egonkor mantendu da.



### Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Europar Batasuneko eta Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusia
- Menter Môn

## 3.10

*Euskaren eremu osoan hizkuntza-egoera sozialaren berri ematen duten adierazleen bilduma sistematikoa.*


### Bulegoko langileak |

- Olatz Altuna Zumeta  
(Soziolinguistika Klusterra)

## Euskararen Adierazle Sistema

Proiektuak ibilbide luze eta emankorra du: prestaketa- eta diseinu-lanak 2013-2015 aldian egin ziren, eta 2015-2017 epean garapen teknikoari ekin zitzaion. Soziolinguistika Klusterra hasieratik aritu da aholkularitza teknikoa eskaintzen, prozesu osoan zehar laguntza espezializatu emanaz.

2025ean, jarraipen teknikoa egiteaz gain, unibertsitate-eremurako adierazle berriak proposatu dira, dauden adierazleak eguneratu dira, eta formazio-saioak eskaini dira udaletako eta euskara elkarteetako teknikariei, EASen edukia eta erabilera ezagutarazteko.



- <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/euskararen-adierazle-sistema-eas/>
- <https://www.euskadi.eus/eas/>
- <https://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/euskararen-adierazle-sistema>
- <https://www.mintzaira.fr/eu/baliabideak/euskararen-adierazle-sistema.htm>

### Sustatzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Nafarroako Gobernua – Euskarabidea
- Euskararen Erakunde Publikoa
- Gipuzkoako Foru Aldundia- Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza
- Bizkaiko Foru Aldundia – Euskara, Kultura eta Kirol Saila
- Arabako Foru Aldundia – Euskara Zerbitzua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava

## 3.11

*Arnasguneen eta hizkuntza gutxituetako hiztunen dentsitate handiko zonaldeen inguruko azterketak eta proposamenak aurkezteko ekitaldia.*

### Bulegoko langileak |

Asier Basurto Arruti

### Partaideak |

Batzorde Antolatzailea:

- Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea
- Soziolinguistika Klusterra
- Udako Euskal Unibertsitatea
- Coppieters Fundazioa

Batzorde Zientifikoa:

- Xan Aire (Plazara)
- Patri Arburua (Bortzirietako Euskara Mankomunitatea)
- Miren Artetxe (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)
- Maddi Dorronsoro (European Centre for Minority Issues)
- Mikel Gartziarena (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Conchúr Ó Giollagáin (University of the Highlands and Islands)
- Iñaki Iurrebaso (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea)
- Elin Haf Gruffydd Jones (University of Wales – European Language Equality Network)
- Jon Mentxakatorre (Mondragón Unibertsitatea)
- Jon Sarasua (Mondragón Unibertsitatea – Euskaltzaindia)
- Arkaitz Zarraga (Udako Euskal Unibertsitatea)

## Arnasguneak Hizkuntza Gutxituen Biziberritzean Nazioarteko Konferentzia

2025eko urriaren 16an eta 17an egin zen Azpeitian, eta nazioarteko aditu, ikertzaile eta eragile sozialak bildu zituen, hizkuntza komunitate ezberdinetako esperientziak partekatzeko eta ikuspegi konparatua garatzeko asmoz.

Ekitaldiaren helburu nagusien artean izan zen arnasguneen garrantzia ikuspegi teorikotik zein praktikotik sakontzea, hizkuntza gutxituen biziberritze estrategietan duten lekua argitzea eta nazioarteko esperientzien arteko elkarrizketa sustatzea. Horrez gain, politika publikoetarako eta tokiko ekimenetarako proposamen zehatzak lantzea bilatu zen, arnasguneak babesteko eta indartzeko neurriak identifikatuz.

Bi egunetan zehar egindako hitzaldi eta mahai-inguruetan euskal tesuingurua abiapuntu hartuta, beste hizkuntza komunitate batzuetako kasuak ere aurkeztu ziren, arnasguneen bilakaera eta gaur egungo erronkak aztertuz. Konferentzia honek, beraz, arnasguneen inguruko gogoeta akademikoa eta hausnarketa soziala.



➤ <https://www.ueu.eus/jarduera-akademikoa/2177-arnasguneak-hizkuntza-gutxituen-biziberritzean-nazioarteko-konferentzia>

### Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Azpeitiko Udala
- Europako Parlamentua

## 3.12

*Biziberritzeko ahaleginetan ari diren munduko hizkuntzei buruzko diskurtso eta kontakizunak aztertu, landu eta berritzea da proiektu honen helburua.*

### Bulegoko langileak |

- Belen Uranga
- Iñigo Beitia
- Paula Laita
- Asier Basurto
- Imanol Larrea

### Sustatzaileak |

- Garabide
- Plazara
- Taupa Mugimendua
- Soziolinguistika Klusterra

## BIHAR: hizkuntzetatik jalgitzen ari den mundua

Proiektuak hiru atal nagusi ditu: munduan hizkuntzak biziberritzeko erabiltzen diren diskurtsoen diagnostikoa, Euskal Herriko eragileekiko lanketa eta nazioarteko kongresua.

2025ean diagnostikoa egin da eta beste bi ataletarako jarduerak pres-tatu dira.

2026an diagnostikoaren emaitzak zabalduko dira, Euskal Herriko eragi-leen artean gairen lanketa egingo da, ekarpenak jasoko dira eta nazioar-teko kongresua antolatuko da, mundu guztitik etorritako eragileekin.



### Babesle-laguntzaileak:

- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, Eusko Jaurlaritz

## 3.13

*Euskal soziolinguistikaren eremuko hausnarketa eta ikerketa lanen lehiaketa.*

### Bulegoko langileak |

- Asier Basurto Arruti
- Isabel Godinez Hidalgo
- Asier Basurto Arruti (Soziolinguistika Klusterra)

### Sustatzaileak |

- Euskal Herriko Unibertsitatea eta Soziolinguistika Klusterra



## Txillardegui-Hausnartu soziolinguistika sariak

2008. urtean sortu ziren Hausnartu soziolinguistika sariak, eta 2019an, EHUrekin elkarlana abiatzarekin batera, Txillardegui-Hausnartu Sariak izatera pasa ziren.

Lehiaketaren helburua euskal soziolinguistika teorikoaren eta metodologikoaren garapena da; esparru horretako ikerlarien lana bultzatzea, eta beste zenbait esparrutakoak euskal soziolinguistikaren eremura biltzea (soziologiatik, hizkuntzalaritzatik, zientzia politikoetatik, psikologiatik, antropologiatik edota komunikazio-zientzietatik, esaterako).

2025ean hiru lan hauek izan dira sarituak:

- > **Lehen saria:** *Zuk, zergatik ez? Hizkuntza-hautua finantza-entitateen zerbitzu digitaletan* (Ainhoa Delgado Iriondo)
- > **Bigarren saria:** *Hirigune frantses batean euskaraz ikastearen oxymorona: Baionako Estitxu Robles Kolegioaren kasua* (Kimetz Perez-Harispé)
- > **Hirugarren saria:** *Irakaslegaiak euskararen sistole: bizi a(ha)la iraun? Euskal Herrian euskararen transmisioan gako izango diren azterketa* (Mikel Gartziarena San Policarpo)

Sarien banaketa ekitaldia 2025eko abenduaren 19an, EHUren Gasteizko Micaela Portilla Ikergunean. Bideoetan jasota geratu dira bertan saridunek egindako lanen aurkezpenak. Horrez gain, Bat aldizkariaren 2026ko zenbaki batean argitaratuko dira saritutako hiru lanak eta lehiaketan parte hartu duten beste zenbait.



➔ <https://soziolinguistika.eus/txillardegui-hausnartu>

### Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritzak – Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



## 3.14

*Euskararen gaineko ikerketa soziolinguistikoa hedatzeko helburua duen aldizkari zientifikoa.*

**Zuzendariak** | Estibaliz

Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea)

**Editorea** | Belen Uranga

(Soziolinguistika Klusterra)

**Erredakzio Batzordeko kideak** |

Nekane Arratibel (HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea),

Beñat Garaio (Ikertzaile

independentea), Eneko Gorri

(Miarritzeko Herriko Etxea),

Jone Miren Hernández (EHU),

Lionel Joly (Euskaltzaindia),

Paula Kasares (Nafarroako

Unibertsitate Publikoa), Iñaki

Martínez de Luna, Inma Muñoa

(Ikastolen Elkarte), Maria-Jose

Azurmendi - emeritua

**Bulegoko langileak** | Belen

Uranga Arakistain, Isabel

Godinez

## Bat soziolinguistika aldizkaria

Aldizkaria Euskal Kulturaren Batzarrak (EKB) sortu zuen 1990. urtean, Jose Luis Enparantza Txillardegiren inplikazio zuzenarekin.

Publiko hartzailea euskal soziolinguistika esparruan lanean ari diren ikertzaileak, unibertsitateko irakasle eta ikasleak, eta euskara biziberritzeko prozesuan inplikaturik dauden agenteak dira. Horien artean, Herri Administrazioiko hizkuntza-politikako ardura publikoa dutenak eta teknikariak daude, hala nola, euskararen normalizazioan murgilduta dagoen gizarte osoa.

Urtero lau zenbaki argitaratzen dira, paperezko formatuan eta modu digitalean. Artikuluak zein aldizkari osoak webgunean daude eskuragarri.

2025ean argitaraturiko zenbakien gaiak honakoak izan dira:

- 134: Txillardegi-Hausnartu Sariak (2024)
- 135: Familien hizkuntza-politika
- 136: Kontzientzia soziolinguistikoa Unibertsitatean

➔ <https://bat.soziolinguistika.eus/>



### Babesle-laguntzaileak:

- Eusko Jaurlaritza – Hizkuntza politikarako Sailburuordetza

## 3.15

*Bertako eta nazioarteko soziolinguistika albistekak, hitzorduak eta argitalpenak biltzen dituen hamabostekari digitala.*

# Soziolinguistika Albistaria

Zaintza teknologikoa sistematikoki egiteko tresnen bidez, soziolinguistikaren, hizkuntza gutxituen eta euskararen biziberritzearen gaineko jarduera zientifikoak, akademikoak eta sozialak jarraitzen ditu Soziolinguistika Klusterrak. Egun, 100 iturri baino gehiago baliatzen dira intereseko informazioa biltzeko.

Jasotako informazio hori Soziolinguistika albistariaren bidez helarazten diogu euskal soziolinguistika komunitateari. Funtsean, hitzorduez, irakurgaiez, eragileez edo ideiez elikatzen dugu Soziolinguistika Klusterraren inguruan lanean diharduen sarea.

Hain zuzen, hamabost egunean behin, bertako eta nazioarteko soziolinguistikari buruzko 18 albiste inguruko bilduma zabaltzen dugu posta elektronikoz, sare sozialen bidez eta webguneko <http://soziolinguistika.eus/albistaria> atalean. Dagoeneko 200 zenbaki baino gehiago hedatu dira; 2025. urtean, zehazki, 178.etik 198.era.

### Bulegoko langileak |

- Asier Basurto Arruti  
(Soziolinguistika Klusterra)

### Partaidea |

- Leire Muxika  
(Emun kooperatiba)

The screenshot shows the website interface for 'Soziolinguistika albistaria'. At the top, there is a header with the title and the logo of the Soziolinguistika Klusterra. Below the header, the main content area features several articles. One article is titled 'Txillardegi-Hausnartu sariak banatu eta saritutako lanak aurkeztu ziren abenduaren 19an Gasteizen [BIDEOAK]' and includes a photo of a group of people holding certificates. Another article is titled 'Bat soziolinguistika aldizkariaren 136. zenbakian "Kontzientzia soziolinguistiko" aztertu da unibertsitatean' and includes the logo for 'bat Soziolinguistika aldizkaria' and 'KONTZIENTZIA SOZIOLINGUISTIKOA UNIBERTSITATEAN'.

➔ <https://soziolinguistika.eus/albistaria>

### Babesle-laguntzailea:

- Gipuzkoako Foru Aldundia – Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza



4

## LANKIDETZAK, HARREMANAK ETA BESTELAKOAK

*Elkarlana oinarri*

### 4.1 AURKEZPENAK, HITZALDIAK, FORMAKUNTZAK, KOMUNIKAZIOAK ETA SAIO PUBLIKOAK

**2025/01/27, Gasteiz.**

Arabako euskara teknikariei jendaurrean.eus erakundeek euskaraz komunikatzeko gidaren aurkezpena.

**2025/02/26, Donostia.**

Gipuzkoa Arigune aurkezpena Gipuzkoako Foru Al-dundia, Taupa eta Badalabekin batera.

**2025/02/20, online.**

Jendaurrean.eus erakundeek euskaraz komunikatzeko gidaren aurkezpenarako webinarra.

**2025/03/13, online.**

Nafarroako Gobernuo langileekin jendaurrean.eus erakundeek euskaraz komunikatzeko gidaren aurkezpena eta euren testuinguruari buruzko saioa.

**2025/03/25, Eibar.**

Sozialazio eta transmisio mintegian jendaurrean.eus erakundeek euskaraz komunikatzeko gidaren aurkezpena.

**2025/05/13, online.**

Indeus proiektuko kideekin Itzulinguru proiektuaren emaitzen aurkezpena.

**2025/06/05, Donostia.**

Enpresarean Foroan jendaurrean.eus erakundeek euskaraz komunikatzeko gidaren aurkezpena.

**2025/06/10, online.**

Galesko Gobernuak gonbidatuta aurkezpena Sozio-linguistika Klusterraren lanari buruz hizkuntzaren biziberritzean ari diren gobernuo langileei.

**2025/06/26, Viena.**

Rise Up proiektuaren baitako "Bridging the Gap Between Language Policy Planning and Language Policy Making" mahai-inguruan parte hartzea.

**2025/07/02, Donostia.**

HABEK antolatutako Uda Ikastaroan Itzulinguru proiektuaren emaitzen aurkezpena eta hezkuntza sektoreko parte hartzaileen mahai-ingurua.

**2025/09/04, Kanariar Uharteak.**

Antropologiako XVII. ASAEK Kongresuan Bilboko gurasoen bizipen soziolinguistikoei buruzko aurkezpena.

**2025/09/12, Bergara.**

TMeLABek antolatuta "Euskararentzako Hizkuntza Politika berri baten beharraz" mintegian parte hartzea.

**2025/10, Eskoriatza.**

Garabide Elkarrekin antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Ikastaroan aurkezpenak Hizkuntza Ekologiari buruz eta Tâsilhqot'in herriaren hizkuntza-biziberritze prozesuari buruz aurkezpenak.

**2025/10/22-25, Gasteiz.**

'GJH galdua. Arriskuan dauden hizkuntzak eta Garapen Jasangarria' Foundation for Endangered Languages-en XXIX. nazioarteko biltzarrean "Hizkuntza gutxituen biziberritzea komunitatearen garapen iraunkorraren bektore gisa: lehen hurbilpen bat Euskal Herritik" aurkezpenarekin parte hartzea.

**2025/11/11, Palma Mallorca.**

Institut d'Estudis Baleàrics-ek antolatutako IX. Jornada de Dinamització Lingüística jardunaldian Eralan proiektuaren aurkezpena.

**2025/11/11, online.**

INSTILS Global Online Workshop-ean Soziolinguistika Klusterraren jarduna, BIHAR proiektua eta diskurtsoen diagnostikoaren aurkezpena.

**2025/11/12, online.**

EAEko finantza-entitateen elkargunean jendaurrean, eus erakundeek euskaraz komunikatzeko gidaren aurkezpena.

## 4.2 KIDETZAK ETA PARTE HARTZEAK

2025/01. Pasaia-Lezo Lizeoan Bigarren Hezkuntzako ikasleekin hizkuntzen erabileraren neurketak egiteko aholkularitza teknikoak.

2025/02. Galtzaundi Euskara Elkarteari laguntza Tolosako inauterietan hizkuntzen kale-erabileraren neurketa egiteko.

2025/07/03. EUFOLC proiektuko Kanpo Aholkularitza Batzordean parte hartzea.

2025/11. USaP (Unibertsitate Sartzeko Proba) azterketa soziolinguistika sartzeko proposamen zirriborroari ekarpenak.

2025/12. Galtzaundi Euskara Elkarteari laguntza Tolosan hizkuntzen kale-erabileraren neurketa egiteko.

Hizkuntza gutxituak sustatzeko diskurtsoen mundu mailako diagnostikoaren harira, lankidetzak akordioak sinatu dira Linguapax, EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra, HIGA, First Peoples' Cultural Council (FPCC) eta Endangered Language Project (ELP) erakundeekin.

NPLD hizkuntza aniztasuna sustatzeko Europako sarearen jardueretan parte hartzea:

- 2025/5/8, Iruñea. Urteko Batzar Orokorrean parte hartzea.

- 2025/05/9, Iruñea. A Focus on High Vitality Areas for Minority Languages jardunaldian parte hartzea.
- 2025.11.06-7, Leeuwarden (Frisia). Zinema eta hizkuntza gutxituak gaiaren inguruko NPLD-Coppieters Campusa.
- Uninet ikerguneen sarearen koordinazio guneetan parte hartzea.

## 4.4 BESTE HARREMANAK

**2025/02.**

Llengua i dret aldizkariaren blogean Soziolinguistika Klusterraren 20 urteko ibilbideari buruzko artikulua: Soziolinguistika Klusterra: Ikergune berezi bat, euskarara biziberritzera bideratua.

**2025/03/12.**

ETBko Egun on Euskadi saioan elkarrizketa, Galesko hizkuntzen erabileraren kale-neurketari buruz.

**2025/05/10, Andoain.**

Justin Willoughby ikerlari australiarrarekin kontraste saioa, bere doktore tesiaren inguruan.

**2025/07/27.**

Gara elkarrizketa, proiektzio soziolinguistikoen inguruan.

**2025/08/29.**

ETBko "Tribuaren berbak" saioan elkarrizketa.

**2025/09/26, Donostia.**

Kontseiluak sustatutako Batuz Aldatu dinamikaren baitan Itun Soziopolitiko berrirako eskaintzaren aurkezpenean parte hartzea.

**2025/09/30, Andoain.**

Garabidek antolatutako Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aduku Ikastaroan parte hartzen duten ikasleei Soziolinguistika Klusterraren jardueraren aurkezpena.

**2025/10/1, Andoain.**

Frisiako NHL-Stenden Unibertsitateko hezkuntza arloko 20 ikasle eta irakasle baino gehiagoko taldeari Soziolinguistika Klusterraren jardueraren aurkezpena.

**2025/10/22.**


ARGIaren "Iragarpen beltzak hizkuntza-politika auzara eskatzen du" erreportajearen "Ikusi, ikasi eta aurrera egin" artikulua.





## BALANTZE EKONOMIKOAREN LABURPENA


Bazkide, lankide, finantzatzaile eta erabiltzaileekin gardentasunez jokatzeko dugun konpromisoari erantzunez 2025eko jardura ekonomikoa laburtzen duten datu batzuk eskaintzen dira jarraian.



- Pertsonal Gastua
- Proiektutetako Kanpo Zerbitzuak
- Gastu Orokorrak

### GASTUAK

**828.948 €**



- Fakturazioa
- Eusko Jaurlaritza (HPS eta Hezkuntza Saila)
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Nafarroako Gobernua - Euskarabidea
- Udalak
- Bazkideak
- Erakunde pribatuak

### SARRERAK

**829.989 €**





**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**  
Euskara biziberritzeko  
ikergunea

## **URTEKO TXOSTENA 2025**

